



HERNANIKO IKASLEEN MATRIKULAZIO ESKUBIDEA

Hernaniko haur multzo batek Euskal Eskola Publikoan matrikulatzeko garaian izan dituzten zailtasunak direla eta, ELA sindikatuak iturri desberdinen informazioa jaso ondoren zera adierazi nahi du:

1. ELAk argi eta garbi azaldu nahi du euskal eskola publiko, euskaldun eta kaliotatezkoaren aldeko konpromezua eta lana beste behin ere berresten duela, are gehiago azken bolada honetan pairatzen ari garen eraso bortitz eta deitoragarriaren ondoren.
2. Guraso orok bere seme-alabentzat aukeratutako hezkuntza publikoan matrikulatzeko eskubide osoa bermatu behar dela pentsatzen dugu.
3. Hernaniko ikasle multzo honi eman dioten irtenbidea, hiru eskola publikoetan umeak banatuz, ikastetxe hauei baliabide gehiago eskeini gabe, partxe bat besterik ez dela pentsatzen dugu. Are gehiago, datozen urteetan ikastaldea masifikatuak egongo direla antzematen da, ratioak gairatu bait dituzte eta ikasturtean zehar matrikula berrien %10eko salbuespen egoera erabili bait dira. Hortaz, ikasle berriak matrikulatzen badira itunduko ikastetxera bideratuko dituztela ondorioztatu dezakegu.
4. Ratioen arira, batek baino gehiago esango du iada Hernanin ez dela arazorik egongo, denak ratio barruan egongo bait dira, Wert Hezkuntza ministroak eta Celaa hezkuntza sailburuak inposatu ditzaketan neurri basatiekin. Ba, guk badugu zer esan: ez dugu onartzen Euskal Eskola Publikoa desmantelatzea, ez ditugu espainiar estatutik datozkigun inposaketak onartzen, ez dugu autogobernua txikitzea onartzen eta ez dugu merkatu zein kapitalismo basatiaren morroi izatea onartzen. Horregatik, Celaa eta Eusko Jaurlaritzari neurri hauek ez aplikatzea exijitzen diogu. "Ez ditugu onartu nahi baina tamalez aplikatu behar ditugu" pentsatzen baldin badute, beraien karguak utzi ditzatela eta dimititu dezatela exijitzen dugu. Euskal Autonomi Erkidegoko biztanleriaren ongizatea defenditu beharrean merkatuen eta kapitalismo nazkagarri honen ongizaterako lanean ari bait dira.

5. Hernanin hezkuntza eredu eta ikatetxeen baliabideei dagokionez, udalak, irakasle, guraso eta herriko eragile sozial guztien artean, herriko ikastetxeen inguruko hausnarketa egin behar dela iritzi dugu, herriko ikasle guztiek eskola integrala eta kalitatezkoa jaso dezaten, ahal den neurrian talde heterogeneoak bultzatuz. Bide honetan aurrera eginez bai udalak bai Hezkuntza Sailak, bere eskumeneko ardurak hartu ditzatela eskatzen dugu.
6. Hernanin zein Euskal Herriko auzo, hiri eta herri guztietan kalitatezko hezkuntza bermatzeko bidean lanean jarraituko dugu ELAko militanteok, tokian tokiko beharrak eta eskubideak defendatuz. Hortaz, Hernanin kalitatezko hezkuntza publikoa bermatzeko bidean, hezkuntza sailari zera eskatzen diogu; **Hernanin beste lerro bat ireki dezatela, planifikazio egokia bultzatuz eta ikasleen heterogeneotasun printzipioak ahal diren neurrian errespetatuz.**

Hernanin, 2012ko maiatzaren 8an